



Aldaketa handiak trafikoan Tourra Donostian izango dela eta

Uztailaren 1etik 3ra aldaketa batzuk izango dira hiriko zenbait tokitako ohiko fluxuetan

Joan-etorriak garaiz planifikatzeko eta, ahal dela, garraio publikoa erabiltzeko aholkua herritarrentzat

Uztailaren 2an, igandea, Donostian amaituko da Frantziako Tourraren bigarren etapa, eta astelehenean, uztailaren 3an, Donostia zeharkatu eta Baionarantz abiatuko da. Ekitaldi hori antolatzeak aldaketa handiak eragingo dizkio hiriko zenbait gunetako trafikoari uztailaren 1ean hasita. Hori dela eta, joan-etorriak garaiz planifikatzeko eta, ahal dela, garraio publikoa erabiltzeko aholkua eman diete herritarrei. Era berean, munduan den kirol-ikuskizunik handienetako batez gozatzeak aukera ere izango da; gure hirira hirugarren aldiz ailegatuko den ikuskizuna.

Eragin horiek karrera pasatuko den ibilbideetan eta inguruko beste kale batzuetan ere izango dira, eta aldaketa handiak izango dira hiriaren ohiko jardunean. Udaltzainak, mugikortasun agenteak, boluntarioak eta Frantziako Tourraren Grand Départeko antolakuntzaren pertsonak arituko dira bideak ixten.

Trafikoari itxitako zenbait kaletan oinezkoentzako pasabide batzuk ere moldatuko dira tartean-tartean. Baina, une jakin batzuetan bakarrik izango da handik pasatzeko modua. Behar bezala seinaleztatuta izango dira, eta baimendutako langileak arituko dira bidea gurutzatzekoan seguru gurutzatu ahal izateko laguntzen.

Larrialdietako ibilgailuek beti izango dute sortzen diren premietara pasatzeko lehentasuna.

Tourraren antolatzaileek eta Udalak gomendatzen dute ibilgailu partikularrik ez erabiltzeko bi egun horietan, eta garraio publikoa hartzeko, garraio publikoak ere ibilbide eta ordutegi aldaketa batzuk izan beharko baditu ere. Era berean, joan-etorriak garaiz planifikatzea ere gomendatzen dute.



Autoak kentzea

Lasterketa pasatzen den kaleetan aparkatutako ibilgailuak kendu egin beharko dira. Hala, ezin izango da inola ere aparkatu, ezta une batean ere, Tourraren 2 etapak pasatzen diren ibilbideetako kaleetan. Hori dela eta, ekainaren 27ko goizeko 9:00ak aldetik aurrera, udaltzainek eta mugikortasuneko agenteek koordinatutako señaletan bertan egon daitezkeen autoak kentzen hasiko dira.

Karga-deskargak

Uztailaren 3an, astelehena, Parte Zaharreko zamalanak lehenago bukatzea eskatzen du Udalak: 10:00ak baino lehen bukatuta izatea.

Hondakinak biltzeko zerbitzua

Uztailaren 3an ez da beira bilketarik izango Parte Zaharrean. Hurrengo egunean izango da, uztailaren 4an, asteartea.

Paperaren, ontzien eta gainerakoen bilketa goizeko 06:00etan hasita egingo da.

TAO

Araupeko tokietan aparkatzeko baimena duten egoiliarrek hiriko gainerako sektoreetan aparkatu ahal izango dituzte ibilgailuak (ibilgailua aparkatzen duten lekuko TAO txartela dutenen baldintza berberetan) uztailaren 4ra arte.

Ibilgailuentzako eta oinezkoentzako itxita izango diren bideak

Uztailaren 1a, larunbata

Uztailaren 1ean Zurriola hiribidea itxita izango da 20:00etatik aurrera, helmugako arkuak eta podiuma jartzeko.



Sagues eta Pasealeku Berria uztailaren 1eko 18:00etatik aurrera izango dira itxita, eta uztailaren 2ko 23:00ak aldera irekiko dira berriz.

Saguesen jarriko da gune teknikoa (80 kamioi baino gehiago izango dira), eta handik zainduko da lasterketaren segurtasuna, jarraipena eta funtzionamendua. Pasealeku Berrian Tourreko teknikariek jateko eta atsedean hartzeko lekua izango da; besteak beste, helmuga jarri eta kentzen lan egingo baitute pertsona horiek.

Uztailaren 2a, igandea

Uztailaren 2ko etapa Gasteizen hasi eta Donostian bukatuko da, Zurriola hiribidean, hiriko kale batzuetatik pasa eta 4,8 km-ko ibilbidea eginda.

Publizitate-karabana 15:24 inguruan iritsiko da, eta lasterketa 16:57 inguruan sartuko da, Pasaia aldetik.

Ibilbide hau egingo du: Buenavista hiribidea - Pasaia portuko zeharbidea - Jose Elosegi alkatearen hiribidea - Ategorrieta - Nafarroa hiribidea - Zurriola hiribidea.
Ibilbide hori 12:00etatik 18:30era izango da itxita, gutxi gorabehera.

Bide horiez gain, Tourraren beharrak direla eta, Argentinako Errepublika, Boulevarda, Miramar eta Askatasunaren hiribidea ere trafikorik gabe geratuko dira.

Igeldo

Igeldo uztailaren 2ko (igandea) 18:00etan itxiko da baimenik ez duten ibilgailu partikularrentzat, auto pilaketarik izan ez dadin. Hala ere, auzotarrek, kanpineko bezeroek eta inguruko hotel eta jatetxeetan lekua gordeta dutela egiaztatzen dutenek pasatzeko baimena izango dute uztailaren 3ko 10:30ak arte. Handik aurrera erabat itxita izango da 17:00ak arte. Ibilgailuentzat itxita izateak ez du esan nahi beste modu batean igotzeko modurik ez denik izango lasterketaz goatzera.



Uztailaren 3a, astelehena

Uztailaren 3ko (astelehena) etapak mendebaldetik ekialdera zeharkatuko du hiria, eta 19,3 km-ko ibilbidea egingo du. Oriotik Igeldora sartuko da, eta Antiguatik, Erdialdetik eta Grosetik igaro ondoren, Pasaitik irtengo da.

Publizitate-karabana 13:42 inguruan iritsiko da, eta 15:29 inguruan sartuko da karrera Orio aldetik.

Ibilbide hau egingo du: Aita Orkolaga - Kristobal Balentziaga - Igeldo pasealekua - Iruñea - Zumalakarregi - Satrustegi - Kontxa - Zubieta - Easo - Askatasunaren hiribidea - Hernani - Bulebarra - Erregina Erregeordea - Zurriola hiribidea - Nafarroa hiribidea - Ategorrieta - Jose Elozegi alkatearen hiribidea - Pasaiako portuko zeharbidea - Buenavista etorbidea. **Gutxi gorabehera, 10:30etik 17:00ak arte izango dira bide horiek itxita, Igeldon izan ezik.**

Bide horiez gainera, ondoko beste batzuk ere itxiko dira:

- Altza - Herrera: Altza pasealekuko biribilgunea - Herrera pasealekua - Peruene kalea.
- Bidebieta: Nornahi plazako biribilgunea
- Intxaurrondo: Zubiaurre biribilgunea - Txaparrene eta Mons pasealekua (Zubiaurre alderako desbideraketa)
- Gros: Euskadi plaza eta Jaialai - Ategorrieta
- Erdialdea: Foru pasealekua - San Martin
- Antigua: Europa plazako eta Pio Barojako biribilguneak - Mikelete pasealekua.

Igeldo

10:30etik 17:00etara erabat itxita izango da. Bizilagunek, kanpineko bezeroek eta Igeldoko hotel eta jatetxeetan tokia gordeta dutela egiaztatzen dutenak 10:30ak arte izango dute pasatzeko modua.



Informazio eguneratua

Udalaren webgunean izango da (www.donostia.eus/Tour2023 edo www.letour.euskadi.eus) informazio eguneratua. Bestalde, Waze aplikazioan ere izango da –denbora errealean– trafikoa diren oztopoen eta aterabiderik onenen berri.

Aholkuak

Euskadiko Irteera Handiaren antolatzaileak gomendio hauek egin ditu etapak ondo igarotzeko:

- Garaiz planifikatzea joan-etorriak.
- Ez hartzea auto partikularrik
- Garraio publikoa hartzea
- Arriskurik txikiena ere ez hartzea argazki bat ateratzeagatik
- Ez joatea txirrindularien ondoan korrika
- Errespetatzea txirrindularien ahalegina
- Ez piztea bengalarik errepidean
- Maskotak uhalaz lotuta edukitzea beti
- Errepidera ez sartzea
- Haurrak babestea

Donostia, 2023ko ekainaren 23a